

## **Kristo'ren Yesu Yaungoikotasuna**

### **1) Yesu-Kristo'ren Yaungoikotasuna**

Izadi dana arrituta da  
eguzki, izarr, illargi,  
maitasun samurr irudi diran  
lora gorri, lili zuri.

Yazokun guren, amesan gain  
azalgaitz ta arrigarri,  
gertatu dala, dakus gizonak  
ta diñotso buruari:

Nire begiak ikusten dauna  
amesan bat da; egia?...  
gure antzeko gizon egiña  
zelan Yaungoiko-Semea?

Mugabage dan Yaungoiko Altsu  
gizon argalen irudiz,  
txiro ta bakarr, askatxo baten  
dakust nik lenengo aldiz.

Etsayakandik igeska dakust,  
Aloroduna dan arren,  
lantegi baten, izerdiagaz  
yanaria irabatzen.

Bizitz ixilla, nekez betea,  
menpetasunez deundua...  
Zelan leiteke Zoriona dan  
Yaungoiko batek autua?...  
Ez ete da ba, donoki-lurren  
Egille ta Yaube altsu?,  
Bere Itzagaz ludia egin  
eban Yaungoiko Indarrtsu?...

Eguzki antzez illunpetik lez,  
sortu zan egun batean,  
«Egia Neu Naz», esanaz argi  
gau baltz zan ludi erdian.

Gizon itxaso zabal nastuan  
murgil ebillen gizona,  
begiak zabal, sorruta diño:

nor da itz ori diñoa?...

Yakintsuenak, gizaldi-zeurr  
dakustaz yoran-yoranez,  
egian billa, ta txinparta bat  
lortuaz neke ta lorrez.

Ta «Egia Neu Naz» zintso ta apal  
diñoan gizon asarrtu,  
langille baten semetzat danok  
ez al dogu ezagutu?...

Oldozkun oneik ezin aditu  
ta itun, samin, artega,  
gizon geyenak, geyago barik  
yo eben lengo bidera.

Eta egia mingarri yaken  
gizon biotz gexotiak,  
Beren etsai lez euki zituan  
Yaungoikoaren Semeak.

Baña Yaun onak ez eban etsi,  
yarraitu eban esanaz:  
«Ni naz ludiko Argia eta  
zuen Bizitza be Neu Naz».

Gizon izanik, zelan leiteke  
Au izan Bizitz berbera?  
Gizon garanok, ludi onetan  
ilkorrek ez ete gara?

Ta uste eben bere senean  
ez ete egoan gizona,  
zala, ain gogo beroz egiok  
argi azaltzen zituna.

Kristo'k aurrera yarraitu eban  
Bere asmoak azaltzen:  
«Ni Naz Bidea» asi oingandik  
nire oñatzak yarraitzen».

Banaka batzuk beraganduta  
asi zan erririk-erri,  
zerutarr egi zoragarriak  
azaltzen beartsueri.

Orduartean ezerezertzat  
egozan txiro, gexoak,  
Kristorren goitarr maitasunarren

«Anaitzat» ziran artuak.

Yopukeri ta gorroto baltza  
nagosi ziran ludian,  
goi-maitasunan garrak diz-dagi  
gizarte-gaban erdian.

Eriotzaren lo-zorrotikan  
esnatu ziran gizonak,  
entzunez pozez Kristo'ren agoz  
donokitarr «Barri-Onak».

Andiki eta aberatz dollor  
yakitun arro, zitalak,  
mindu zituan bakantzat euken  
goi-egiaren indarrak.

Etsai bai etsai egertu ziran  
nausitza galtzen bildurrez,  
gau eta egun zerbait asmauz  
irakaslearen kaltez.

Baña guzurra ez da ezerbe  
egi argien aurrean,  
bizitza deunak bere itzakaz  
azaltzen daben artean.

Ikasbidea ipiñi eban  
irakatsien oñarri,  
alan izanik entzuten eben  
erritarr lauen gelgarri.

Parixetarrak ez ziran motel  
besteri zama ezarten,  
naiz ta ez egin alegintxo bat  
irakatsia egiten.

Zama astuna bestearentzat,  
eurentzat onura ba'zan,  
Yesu bigunan ikasbidea  
parixtarrontzat izan zan.

Guzurr ziñaltza, laido lotsage  
arro, gorroto-semeak,  
ziran agotik entzun zituan  
Irakasle on maiteak.

Itsu areintzat erreza yakon  
egoki zan erantzuna:  
«Zuen artean, nor da Nire gain

oben ezarri leikena?»

Beren etsayen ixiltasunak  
Yaungoiko zala ikurran,  
gizon izanda, obenik barik  
bat ez dalako lurbiran.

«Beraz, egia —yarrantu eban—  
ba'diñotzuet zuei,  
zer dala-ta ba ziñestu nai ez  
diñotzuedan itzari?»

Irain, arriak izan zirean  
arein erantzun bakarra...  
Egizalei bizitz onetan  
yagokien zoritxarra.

Ziñeskaitz ba'zara, Yesu'ren egiñak  
aztertu egizuz arret-arretaz,  
ta zintsotasunez esan egidazu  
egin leikezanetz gizon-almenaz:

«Itsua argitu, errenak sendatu,  
ustel-erri garbi, illak biztutze,  
obenak azketsi... Ainbeste gelgarri  
Yaungoiko ez danak egin al leiteke?...

Orixe dala-ta, Yesu'k egi-egiz  
esan al eikien etsai daneri:  
«Nire Egi-itzak ez dozuz ziñesten?  
ziñestu egite gelgarriari».

Ta maitasun-lege, apaltasun eta  
obenen nekea irakatsiaz,  
Yesu, Artzain Ona, ardi galdu billa  
dabil gau ta egun yoran guziaz.

Gizoste andiak bere inguruan  
zintzilika dagoz Bere itzatic,  
egundo alango itzaldi bikañik  
etzan entzun ludi asieratik.

Taldeak millaka yarrantuten dautse  
bakartade soil zan lekaroraño,  
biotza egiaz ase nai geyagoz  
gorputzen gosea ogiaz baño.

Yesu biotzperak, erruki samurrez  
begiratzen dautso gizosteari,  
ta mirari andiz eskiñiten dautse

ogiaz batera, arrain ugari.

Eskertxarra beti dazau inguruan  
eguzki argitan kerizpea lez,  
maitasunez naste saltzallekeria,  
biotz maitekorrak arantzan antzez.

Baita gorrotoak, bedarr txarr antzera,  
sustrayak zituan Beren inguru,  
otso amorratu ankerrak zirean  
Bildotsau ilteko arduraz gertu.

Ikasle gaizto ta saltzalle bategaz  
itundu zirean Yesu'n etsayak,  
ta Bera ilteko alkartu zirean  
gizon basatien griña guztiak.

Yoranez egoan Yaungoiko-Semea  
gure maitasunez yasan gurarik,  
obenena ordaña, Aitari emonaz  
Gurutza batean untzez yosirik.

Ta Bere ordua, urrean zanean  
Azken Aparian bildu zituan,  
Ikasle guztiak, agertzeko asmoz  
zelan maite gaitun Bere barruan.

Arritu kristaua! Ara Yosu maite  
apal ikaslien oñak garbitzen,  
ta Gorputz-Odola, ogi-ardao antzez  
euren yanaritzat maitez emoten.

Gotzon danak ixil, arrituta dagoz  
itzal andiz gurtzen Yainko-Altsua,  
ikusirik zenbat maite daben Yesu'k  
obendaria dan gizon gaxoa!

Ta maitasunezko ikasbide guren  
au emon ondoren, auxe diñotse:  
«Nik zuok maitatu zaituedan antzez,  
zuok bere alkarr maite zaiteze.»

O Maitasun deuna! Non eskutau zara?...  
Gorrotorik asko dakust ludian!...  
Sutuizuz barriro gizonen biotzak  
anai lez guztiak bizi gaitean.

Eguzkik sartzen, izpi samurrenak  
lurrera bialtzen dituan antzez,  
Yesu'ren Biotzak, Nekaldi aurretik

izpi gozoenak agertzen dautsez.

Ikasleak lagun zituala jozan  
Getsemani'rantza, guztiz oldoxtun,  
obenaren zama gogoan ebala,  
Nekaldi-gomutaz Biotzaz itun.

Lurrean auzpeztu, otoi egiteko,  
eriotz samiñaz Bere gogoan,  
larri dagerri Yesu, gure maitasunez  
gabaren erdian baratz txokoan.

«Al dan gauza ba'da, Aita, alde, arren!,  
edontzi garratz au, urrin Nigandik,  
baña nire naya ez daitela egin,  
Zeure naya baño», diño gogotik.

Ta Bere Biotza taupada zoliaz  
lerrtu bearrean dan bitartean,  
Au arrigarria! Ara Yesu maite  
odol izerdiaz gorputz guztian.

Ikasleak lotan, etsayak urduri,  
gabaz Yesu'n billa, lapurr antzera,  
Yudas saltzallea, burutzat ebela,  
lasterr eldu ziran, baratz ertzera.

Zenbat biderr gero, Eleiz-Edestian  
berberau dakusgu, biotz samiñez,  
Kristo'n ikasleak lo daoan artean,  
otsoak triskantzak egin dituez!...  
Yudas, Yesu'gana urreratuten da,  
«Irakasle, agurr», diño maltzurak,  
mosu bat emonaz... auzarkeri onek  
ikaratu ditu zeru ta lurak.

Mosu baltzagorik ez da ezagutu  
gizaldiak-zearr, lurbira ontan,  
baña orren antzez, zenbat guzurr-laztan  
biotz zuzendunak ditu gomutan!  
Laztan ankerr oni, Yesu amultsuak  
damotso erantzun samurr-samurra:  
«Gizonan Semea, ene adizkide,  
laztan batez saltzen asartzen zara»?...

Une gitxi barru, ara gure Yauna,  
bildots otzan antzez ots artean,  
Ikasle guztiak igesi ondoren  
gaizkille bai'litzan, epaitegian.  
Guzurr ziñaldariz salatuten dabe

Errugea zana, lotsarik barik,  
Yesu bitartean epaikari aurrez  
eskuak lotuta ixil-ixillik!...

Baña itandurik, Bere Ikasle ta  
irakatsietzaz, argi darantzu:  
«Nik beti argiro itz-egin dot eta  
Nire entzulei itandu yozu»...  
Esanaz batean morroi zital batek  
zaplada damotso esanaz bizi:  
«Era orrerako erantzun lotsage  
emoten asarttu Yaupariari?»  
—Gaizki esan ba'dot,—diño Yesu'k bakez,  
zetan uts dagidan esan eidazu,  
baña egokiro erantzun ba'dot Nik  
zer dala-ta olan laidotzen nozu?»?

Yaupari Nausiak azkenean diño:  
«Zu al zara Kristo, Yainko-Semea?»  
—«Neu Naz bai» diñotso ta, ikusiko nozu  
egunen batean aintzaz betea.  
Egi pozgarri au, biraotzat dauke;  
Soñeko urratuz Yaupalburuak  
«Biraoa!» diño, zer deritxozue?»  
-«Eriotzgarri da» beste enparauak.

Eta txistu naskak arpegira yaurti,  
matrallako laidoz, irain itzakaz  
begiak estaldu eta diñotsoe:  
«Nok, ia nork yo auan igarrik, gai baaz».  
Eta Yaun maitea ixillik dagerku  
gure maitasunez maltzur anean,  
gaiztakeri danen, erantzupen latza  
gure orde zaula Bere ganean.

Biozge ez dana, zelan izan leike  
Yesu maitatzeko mukerr ta nagi,  
Yaungoiko bat alan nekez ikusirik  
gure gaiztakeri, obenakaitik?  
O Yaungoikoaren maitasun bikaña  
samurr eta sakon neurrigabea,  
Nork ulertu leike? Nork azaldu egiz  
gizonontzat dozun maite-legea?

Orrexek darabil epaitegi-zearr,  
Pilatus lenengo, gero Erodes,  
onek zoro etsi, Pilatusek barriz  
erruge zala-ta, zamau zigorrez.  
Bita ta bestea sentsunge dagerkuz,  
Zoro zelan leike Yakiturik dana?

Zorua bai dala, erruge etsi ta  
Yauna zigortzeko agintzen dauna.

Baña griñaz kibil, galtze bildurr dana  
errez biurtzen da zoro antzeko;  
egi ta zuzentza zapaltzeko gertu  
onura yakona ondo zaintzeko.  
Olangoak beti ugari ludian  
onen kaltez gertu euren onuraz,  
zuzentza-egia ostikopetu ta  
errugearentzat gogorr zigorraz.

Alan Yesu ona erabilli eben  
zigortze ta laidoz, irriz, ixekaz,  
Gurutzan iltzera epaitu aurretik  
an ziran lapurr bi gaizkilleakaz.  
Begira Yesu'ri, gorputz urraturik,  
Gurutz astun latza daula lepoan,  
yausi eta yaiki, aldapa-bidean,  
Kalbari deritxon mendi ondoan.

Ama samurraren biotz maitekorra  
samiñak urratu dau ikustean...  
Nork azaldu daike, alkarr ikuste au  
ta gertatu zana bion artean?  
Nozbaiten eskiñi eutsoen laguntza,  
baita errukia emakumeak,  
ur tantatxo batzuk biztuagotzeko  
yasaten zituan oñaz-nekeak.

Eta lasterr ara: Gurutza gañean  
gure Gaizkalea untzez yosirik,  
lapurren erdian, billotz-billotzik.  
arantza-burestun, egarriz itoten  
eta biozge zan gizoste ankerra,  
oyu, garrazika, laidoz, ixekaz:  
«Gurutza ortatik yatsi adi lasterr  
Yaungoiko-Semea benetan ba'az».

Ta bildots otzana, eroapen andiz,  
oñaze-itxaso sakon aretan,  
ixil ixil dago guretzat parkeske,  
obenak ditula bere gomutan,  
irain danen ordez erruki opaka  
arren eskatuaz Bere Aita'ri:  
«Zer egiten daben ez dakie ba ta  
parka egiezu Aita danori».

Itzotan lapurrak ikusten dau zerbait  
gizatarr ez dana, ta... arren dagitso,



esanaz beragaz gomutau zeitela...  
ta Yesu'k zerua eskintzen dautso.  
Eta Bere Ama, guztion Amatzat  
maite-maitekiro emoten dausku,  
aurrerantzean ba, ez gara umezurtz,  
bere babespean zainduko gaitu.

Ludiko Argia iltamuan zegon  
eta eguzkia lotsa bai'litzan  
Yesu Guntzean ez ikustearren  
izpiak gordeta, illun egin zan.  
Gaberdi batean, Yesu'ren Yayotzak  
inguru guztiak argitu zitun,  
oin eguerdi baten iltzer egoala,  
eguzkia bera dakusgu illun.

Yaunaren oñazez Izadi guztia  
tamalez beterik dala dirudi,  
lurra dardaraka, arkaitzak zatitu,  
eta illargia lotsaz da gorri.  
Eleiza Nausiko oyala zatitu,  
obian ziranak urtetan dabe,  
Gurutza batean il dan ongillea  
aittortzeko dala Yaun eta Yaube.

Yesu'k Gurutzaren goitik oyu dagi,  
Maitasun gurenen azken oyua;  
«Zure eskuetan, Nire Aita Maite  
osoan isten dot neure gogoa.»  
Yazokun oneikaz, gudalburu zanak  
Yauna aintzalduaz diño bildurge:  
«Gurutza orretan il dan gizon ori  
egiz autortzen dot Yaungoiko-Seme.»

Olan il zan Yesu, gure Maitasuna,  
gure Gaizkatzalle, gure Yaungoiko.  
Maitatzalle ori maite ez dabena,  
gaiztesia bedi, beti-betiko!

## 2) Garaitza

Gero... Illobia arkaitz gogorrean  
arri astunagaz ondo itxita,  
ikasleak ostu leikean bildurrez,  
gudari-izkilluz ondo zainduta.  
Yaungoiko alaren ondoan zer dira  
baña, gizonaren ames guztiak?  
«Iru egun barru berbiztuko naz Ni»,  
sari entzun eben, Bere entzuleak.

Esan eta egin; Bizkunde goxean  
Yesu'k itxiten dau Illobi-utsa  
—zaintzalleak izu argitasunagaz—  
Aintzatsu beteaz Yaungoiko-itza.  
Barri au entzunda etsayak artega,  
yazoa zelanbait azaldu nairik,  
iñondik iñora nai ez ebelako  
zabaltzea Yesu'n berbiztutzerik.

Baita asmau bere azalben bakana:  
«Ikasleak ostu dabe gabeen,  
Yesu'ren Gorpua ilobi itxitik  
zaintzalleak lotan ziran artean».  
Guzurr onek baña, adirazoten dau  
lotan egozanak zirala eurak,  
lotan ba'egozan Yesu'n zaintzalleak,  
zelan ezaugutu beren ikaslak.

Ta orrez gañera, lotan artzen dabene  
gudal-zaintzalleak ez dau zigorrik?  
Latteririk al da, lurbira guztian  
zigortzen ez dauna olango utsik?  
Bitartean Yesu, Berrbiztuta sarri  
agertuten yake Ikasleai,  
ta ziñes-gogorak izan ba'ziran be,  
ezagutu eben argi ta garbi.

Beragaz itz-egin, alatzak ikusi,  
zauriak ikutu, onuak artu,  
berrogei egunez, lagun izan eben,  
eta Igokundez donokiratu.  
Agindu eutsen lez, Goteuna yatsi zan  
argi-maitasunez ikaslien gain;  
ezyakin, argalak izan ba'ziran be,  
yakintsu, kementsu dakusguz orain.

Ziñeste bizi ta maitasun garretan,  
Yesu irakatsi deunak zabaltzen  
iñoren bildurrge, kemen bardingean,  
goi ta bekoei egia azaltzen.

Aberatz zikotz ta agintari ankerr,  
azal-guzurr danak aurka dituez,  
baña Ikasleak aurrera darraye,  
Yesu'n Berbiztean Egi-indarrez.  
Espetxe, zigorrak, su eta Gurutza,  
izan dira beti euren saria,  
yasarpen artean, gaizkille bai'ziran  
igaroaz euren bizi guztia.

«Yesu Berbiztu da», euren ikurritza  
ludi zabaleko alde danetan,  
beraz maite Yesu, Berari yarraitu,  
zuzen ibilteko bizitz onetan.  
Egi onen alde yokaturik zintso,  
neke, lorr artean giza-guren lez,  
euren zanetako odol garbi dana  
ixuriten dabe EGIAN aldez.

Ustegarri diran ziñaldari billa  
dabiltzaz yoranez ziñesgabeak?  
Or dira bizia Berbizkunde alde  
emon eben Yesu'ren len-ikasleak.  
Yaungoikotasuna egiz agertzeko  
alatzen artean guztiz andia,  
gure Gaizkatzalle, Yesu otzanaren  
illen artetiko BERBIZKUNDEA.

### **3) Asiera ta azkena**

Estalpe baten, txiro-txirorik  
neguko gaban erdian,  
Yayo zan Yesu, arro, zikotzak  
nagusi ziran aldian,  
biotz geyenak lizunkeriaz  
ustelduta lez egozan.  
Mari Nekarbi Sortzetik Garbi  
Yesu'ren Ama izan zan.

Gizon adiña ilunpean zan  
Kristo'k damotso Argia  
noraezean zorion billa,  
ta darakutso Bidea.  
Oben azpian, illunpe, il da,  
dager gizonen biotza,  
ta Yesu maitek, erruki utsez  
eskintzen dautso Bizitza.

Irakatsirik bikañenakaz  
arritu eban gizona,  
ikasbidean bardin gabea  
guren artean gurena.  
Gaizkatzalle lez agertu zan ta  
Yaungoiko-Seme azaldu,  
alatz ugari ta arrigarriz  
Bere esanak egiztu.

Izadiaren yaube lez dager,  
axe, itxaso baretuz,  
osasunen Yaun, bizitzan Nausi

illik egonak berrbirtuz.  
Obendariei parkatuagaz,  
Yaungoiko lez agertzen da  
eskarr-Bizitza eskiñiagaz  
goi-ondasunen Yaun ona.

Gurutza baten bizitza emon  
neurribako maitasunez,  
eskarrexarreko gizonon alde  
oben guztien ordañez.  
Illen artetik berbirtuagaz  
Yaungoiko zala egiztu,  
Ikurton deunan geldituagaz  
alorodun lez agertu.

Gizon zoil danak egin al leike  
ainbeste alatz, gelgarri?  
Autortu daigun, beraz, guztiok  
Yesu-Yaungoiko-Gidari.  
Berak damosku adin-argia,  
Berak ziñeste goitarra,  
Berak biotzak sendotuteko  
bardingabe dan eskarra.

Ugutza bidez, goitarr bizitza,  
Sendotza bidez kemena,  
Yaunartza bidez Bere Gorputza,  
Autortzagaz azkezpena,  
Azken Igortziz, osatzen gaitu,  
Yaupaltzaz gogo-laguntza,  
Ezkontza deunak iraunkor dagi  
Gizadiaren bizitza.

«Aita Gurea» diñogunean,  
anaitasuna autortu,  
adiraziaz anai antzera  
bear garala maitatu.  
Egizko gentzan iturri ori  
garbi zaintzen dan artean,  
egi-zuzentza nagosi dago  
gizadian biotzean.

Orixe dogu bide bakarra,  
bizitz-zoruna lortzeko,  
baita erbeste onen ondoren  
zoriondun izateko.  
Yesu-Kristo'ren egiak dira  
Bere bizitzaz batean,  
gizonarentzat eutsigarria  
ondamendiko bidean.

Beren Eleizan oarrpen zurrak  
zaindu ba'ziran osoro,  
ez litzakez gaur, laterri asko  
alkarr ondatzen, zearo.  
Yesu-Kristo da, ludiko gatxen  
Osagille on gurena,  
Bera dalako gauza gustien  
asiera ta azkena.

Berari aintza ta maitasuna,  
Berari adin-biotzak,  
Bera otseinduz lortuko doguz  
oin ta betiko zoruntzak.

**Manterola'tar Gabriel**